

ADARRA
Pedagogi Erakundea



INMIGRAZIOA ETA ARRAZISMOAREN GAINDITZEA gaiaren inguruko jardunaldien laburpen eta ondorioak (Bilbo, 2005eko azaroaren 29a eta 30a)

HEZIKETAN ARRAZISMOA GAINDITZEA

Gaur egun, ez dago -teoria mailan, behintzat- arrazakeriaren alde agertzen denik, edo heziketan proposamen arrazistak argi bultzatzen dituenik. Praktikan, ordea, hainbat kolektibo baztertzen edo alde batera uzten dituzten ekintzak zabaltzen eta defendatzen dira, baina ez dira jokabide arrazistatzat hartzen. Teoriaren eta praktikaren arteko kontraesan horiek aztertzeke, eta erantzunak aurkitzen saiatzeko, arrazakeriaren eta bere ondorioen eboluziora hurbildu gara jardunaldi hauetan, ikuspuntu ezberdinetatik.

Identifikatuta daukagun arrazakeria, zeinen aurka erraz jartzen baikara, **arrazismo moderno** da. Horrek, arraza-kontzeptua, arraza ezberdinen izaera eta elkarren arteko menpekotasuna defendatzen zituen. Hala ere, gaur egun beste arrazakeria-mota bat, identifikatuta ez daukaguna, sortu da: **arrazismo postmoderno**, hain zuzen. Honen kasuan, gakoa ez da arrazen arteko ezberdintasuna, etnia edo kulturen arteko ezberdintasuna eta lurraldetasuna baizik.

Kontzeptu hauetan oinarrituta, posible da defendatzea, itxura “aurrerako” batetik, kultura ezberdinetako pertsonak elkarrekin heztea ezinezkoa dela; kultura-erlatibismoa eta ezberdintasunetikiko “errespetua” aldarrikatzen dira, pertsona guztien arteko berdintasunaren helburua ahaztuta. Horrela, erraztasunak ematen dira kulturen arteko gaurko ezberdintasunak mantentzeko.

Lurraldearen defentsak planteatzen du talde kultural edo etniko bakoitzak bere lurralde propioa duela, eta hainbat estrategiatan gauzatzen da: esaterako, kuotetan (lurralde bakoitzak har dezakeen beste kultura bateko pertsona-kopurua, kultura propioa gal ez dadin); asimilazioan (beste pertsona batzuk lurralde batera badatoz, bertan aurkitzen duten kultura bereganatu behar izango dute); albanbre-hesietan eta harresietan (hori gertatu ez dadin, beraien kulturari uko egin ez diezaioten, hobe da ez etortzea, eta bere jaioterrietan heziketa eta aberastasuna bultzatzea) eta, kasu batzuetan, norberaren lurraldeetan harresiak sortzean.

Eskolan, hori hainbat planteamendutan islatzen da; hala nola, ikastetxe bakoitzeko portzentaiaren arabera ikasleak banatu behar direlako planteamenduan; edo hezkuntzaren ikuspegi orekatzaileetan; horien abiapuntua defizitean oinarritutako hezkuntza bat da; hau da, ez dira onartzen kultura ezberdinetako pertsonak garatzen dituzten ahalmenak, eta elkarrekin aberasteko aukera.

Horrelako neurri arrazistak gainditzeko, elkarriketa proposatzen dugu, komunikazioaren ikuspuntutik, oinarrizko bi ardatzekin: ezberdintasunen arteko berdintasuna eta partitutako lurraldeak hain zuzen ere.

a) Ezberdintasunen arteko berdintasuna. Gure ustez, ezberdintasuna berdintasunaren parte bat da, pertsona orok era ezberdinean bizitzeko duen berdintasunezko eskubidea. Hau da, defendatzen dugu pertsona guzti-guztiekin eskubidea dutela egungo gizartean behar duten guztia ikasteko, norberaren nortasuna galdu behar izan gabe; adibidez, nahi bezalako jantziak eramanez. Horrek suposatzen du, bai etnozentrismoa gaitzestea -ez baititu ezberdintasunak errespetatzen-, bai erlatibismoa gaitzestea -zuzentasuna ukatzen baitu-.

Pertsona guztiak eskubide-berdintasuna eta hautaketa- eta errealizazio-aukera berberak izan behar dituzte. Aniztasuna indartzen bada berdintasuna kontutan izan gabe eta pertsona guztiak barne hartzen dituzten gizarte eraldatzeko prozesuak bultzatu gabe, gizarte-bazterketa handiagoa sortzearen arriskua egon daiteke.

b) Partitutako lurraldeak. Kultura eta etnia ezberdinetako pertsonak elkarrekin egon, elkarrekin ikasi eta elkarrekin bizi ahal izateko baldintzak sortzea beharrezkoa da. Arauak ez dira aurretik ematen edo zehazten; aitzitik, partehartzaileek jartzen dituzte elkarriketa eta akordioen bidez, “eskubide unibertsalak” erreferentziatzat hartuz. Ez dugu lurraldearen ideia onartzen, soilik etnia batena dela ulertzen bada, eta bizimodu amankomuna bultzatzen dugu, elkarrekin aberasteko aukera delakoan.

IKASLE ETORKINEN BANAKETARI BURUZKO IRITZI BATZUK

Lehen aipatu ditugun ikusmolde arrazistetako asko, ikasle etorkinen heziketan islatzen dira, era ezberdinetan; garrantzitsuenetako bat, ikasle hauek ikastetxe ezberdinetan banatzeko proposamena da.

Ikasle inmigranteak banatzearen neurria honetan datza: ikasle horiek ikastetxe ezberdinetan banatzen dira, ikasle etorkinak ikastetxe gutxi batzuetan kontzentratu ez daitezen. Neurri horren azpian modu berean alderdikoak diren bi kontzeptu daude. Batetik, ikasle etorkinak denon artean banatu behar den “arazotzat” hartzea; bestetik, “ghettoak sortu ez daitezen” maizen planteatzen den erantzuna izatea (non ghettoak ikasle etorkinen kopuru “altuegia” duten ikastetxeak izango liratekeen).



Hala ere, gure ustez hori ez da erantzun egokia, eta banaketaren aurka gaude, onartzen ez ditugun planteamendu batzuetatik sortzen baita. Hezkuntza sistemak banaketa birplanteatu eta ghettoak gainditzeko estrategiak proposatu behar duelakoan gaude.

Banaketa birplanteatzea: Etorkin- edo gutxiengo-kopuru handia duten ikastetxeak ghattotzat hartzen direnean.

Ikastetxe batean “ikasle etorkin asko” daudenean, suposatutzat ematen da oso zaila -ezinezkoa ez esateagatik- dela hezkuntza-kalitate on bat ematea. Planteamendu oker hori dela medio, arazoaren jatorria ikaslegoan eta bere ezaugarrietan kokatzen da.

- Ikasle etorkinak “arazo” bat direla pentsatzean, itxaropen baxuak sortzen dira, eta horiek lehenengo oztopoak dira eskolan arrakasta izateko. Ikasleen ideia negatibo batetik abiatzea, bere zailtasunak ahalmenak baino gehiago kontutan izatea, itxaropen altuak izateko eta transmititzeko eragozpena da. Eta itxaropen horiek ezinbestekoak dira ikastaldian.
- Ikasleak banatzea eta ikasleei zein ikastetxetara joan behar duten esatea, ikastetxea hautatzeko eskubideak murriztea da, bertako populazioak dituen eskubideekin konparatuta.
- Banaketa asimilazioaren aldeko estrategia da, eta planteatu egiten da ikasleen identitateak, ezaugarriak, interesak eta beharrak kontutan izan gabe.

Banaketaren helburua, ume inmiqranteak ikastetxean ahalik eta lasterren gehiengoak daukaten kulturaren sartzeta da, eta horrek posible dirudi bakarrik etorkinen kopurua murriztua bada.

- Ikastetxeetan kultura-arteko hezkuntza planteatzea zaila da, ikasle etorkinen kopurua handia izanda ere. Baina egia da, “arazoa banatuta dagoenean”, askoz zailagoa dela ikastetxeek interkulturalitatea planteatzea, bertan inmiqrante-kopurua adierazgarria ez delako
- Beharrezkoa da saihestea, bai ikasleen nahitaezko banaketa, bai bizilekutik urrun dauden ikastetxeetan artifizialki kontzentratzea. Aitzitik, premiazkoa da elkartasun eta bizikidetzaren loturak indartzea eta baliabide bereziak behar dituzten auzo eta ikastetxeetan esku hartzea.

Ghettoak gainditzeko estrategia batzuk

- Estrategiarik inportanteena, ghettoztat hartzen diren ikastetxeetan irakaskuntzaren eta bizikidetzaren kalitatea hobetzea eta, horretarako, baliabiderik onenak ematea da. Halaber, beharrezkoa da neurriak ezartzea kontzentrazio artifizialik egon ez dadin.
- Ikasturtean zehar taldeak osorik izaten ez dituzten ikastetxeetan ikaspostuak erreserbatzea, eta borondatezko atxikipena eta ikasle inmiqranteen familiek ikastetxearen benetako hautaketa bultzatzea.
- Sareak edo batzordeak sortzea, sendiei argibideak emateko eta ikastetxea askatasunean aukeratzen dela bermatzeko (gutxienez, gainerako populazioaren neurri berean). Eta jarraipena egitea, hautaketa hori gauzatzen dela ziurtatuz.
- Ikastetxeei dirulaguntzak ematea, hartzen duten ikasle etorkinen portzentaia ingurukoa islatzen badu eta ikasle guztiei erantzun egokia emateko ikastetxeek proposatzen dituzten egitasmoen arabera, denek eskola-arrakasta izan dezaten eta elkarrekin bizitzen ikas dezaten.
- Irakaskuntzaren kalitatea hobetzea eta bermatzea, ikasle inmiqranteen kontzentrazio handia dagoen ikastetxeetan -eta hori, eskola-arrakasta sustatzeko egitasmoen bidez-; gainerako familiei eta biztanleei ezagutu araztea ikastetxe horietako hezkuntza-kalitatea; ikastetxe horietan irakasleen borondatezko atxikipena, eta proiektu berritzaileak burutzeko behar den trebakuntza erraztea. Halaber, ikastetxeen baieztapen-ekintza bultzatzea eta hiritarrak erakartzen dituzten baliabideez hornitzea; hala nola, nazioarteko batxilergoa, IKTn puntako egitasmoak...

- Ikasgeletan aniztasunaren kudeaketa hobetzea, aniztasuna aberastasun bihurtuz; eta familiei, eta gizarteari oro har, ezagutu araztea ikasketak eta bizikidetzaren hobetzeko dituen abantailak.



IRITZI BATZUK HAINBAT KULTURA-DILEMEN INGURUAN

Kultura-arteko elkarrizketak oinarri batetik abiatzea suposatzen du: hain zuzen, ez dagoela kultura hoberik edo txarragorik, denek dauzkatala aspektu positiboak eta aldatu beharrekoak. Elkarrizketa horretan kultura bakoitzak ematen dituen alde positiboak aberasten gara. Era berean, posible eta beharrezkoa da kritikatzeko kultura guztiek -gurea, gehiengoena, barne- dauzkaten alde negatiboak. Elkarrizketa sortzeko garrantzitsuagoa da amankomun daukagunean, akordio posibleetan oinarritzea, banantzen gaituenean egin beharrean.

Beloa. Beloa eramatea edo ez eramatea, pertsona bakoitzak eta, kasu honetan, emakume bakoitzak askatasunez erabaki ditzakeen kontuetako bat da; eta bere erabakia errespetatu behar da. Ulertzen da kultura guztietako emakumeek amankomun daukaten balorea, bakoitzak nahi duen moduan jantzi ahal izatea da, debekurik eta inposaketarik gabe.

Gizarte islamiarraren barruan desberdintasunak daudela uko egin gabe (genero-desberdintasunak gizarte guzti-guztietan baitaude), bertan badira berdintasunezko

gizarte bat eraiki beharra aldarrikatzen ari diren emakume-taldeak. Eta emakume horietako askok defendatzen dute, bai beloaren inposaketak, bai hori jantzi nahi dutenei erabilpena debekatzeak, botere-egoera berbera islatzen dutela. Ondorioz, bi jarrerak gaitzesten dituzte.



Janzteko modu ezberdinak. Sarritan harrituta geratzen gara ikasle batzuen janzkerarekin: kamiseta labur eta estuak daramatzaten neskak, bisera kendu nahi ez duten mutikoak, eta bestelakoak izan daitezke. Egoera gogaikarriak sortzen dira; horrelakoetan, irakasleek beren aurre-iritziak gainditzeko ikasi, batetik, eta, bestetik, ideien eta argudioen trukaketa errazten dituen elkarrizketa piztu behar dute.

Heziketa fisikoko saioak, igerilekuetara joatea eta aldagelak batera erabiltzea ere, ikasle batzuek edo bere familiengan egonezina probokatu dezaketen egoerak dira. Horrelakoek ez dute liskarrik sortu behar; alderantziz, eskolak familien konfidantza bereganatu beharko du, epe erdian, sineskizunak eta elkarrekiko ditugun burutapenak alda daitezkeen, eta pertsonen eta kulturen arteko hurbilketa handiagoa lortzen joateko.

Ikasketei uztea. Bestelako gaia da, zeinen gainean esku hartu behar baitugu: familia batzuk, neskak nerabezarora iristen direnean, haien eskola-aldia eteten dute. Hau ezin da kultura zehatz baten elementutzat hartu.

Arazoa ez da konpontzen familiak alabak eskolara eramatera behartu ezkerro edota, gatazkarik egon ez dadin, egoera alde batera utzita.

Ekintzarako iradokizunak:

- Gatazkarik egon ez dadin egoera alde batera uzteak, momentuko tentsioak baretzen ditu, baina umeei uko egiten die hezkuntza izatea, beren lagunen maila berean; ondorioz, etorkizun hobea izatea uko egiten die.
- Gehienetan, arazoa ez da familiek ez dutela nahi seme-alabak eskolaratzea eta ikastea, antolakuntzari lotutako zenbait xehetasun baizik, edo gurasoek dauzkaten hainbat zalantza edo mesfidantza argitzea baizik (esate baterako, sortzen diren gaietako bat, neskek sexu-harremanak izatearen beldurra da).
- Gatazkari irtenbidea emateko, ez da nahikoa hezkuntza-legeak bete araztea bakarrik, familiekin elkarrizketa izatea baizik, hezkuntza-erakundeak eta kultura-erkidegoak elkar aditu dezaten.
- Umeen heziketan parte hartzen duten eragile ezberdinen arteko (hau da, irakasleen, familien, administrazioen, elkarten... arteko) inkomunikazioa gainditu beharra dago. Eskolak bere ateak ireki eta sendiei entzuten dien kasuetan, gatazka ugari bideratu da.

ARRAZAKERIA GAINDITZEKO ERRAZTASUNAK EMANGO LITUZKEEN EKINTZA BATZUEN LABURPENA

- **Hezkuntza-administrazioaren konpromisoak.**

Inmigratio-Planak ezarritako markoaren barruan, Hezkuntza Sailak plangintza global bat garatu beharko luke, ikastetxe guztietan, gizarte-eragile guztien lankidetzaz, gure gizartean dagoen kultura-aniztasuna era positiboan onar dadin. Interkulturalitatearen ikuspuntutik markoa kontutan hartzeaz gain, honako neurri hauen antzerakoak ezarri beharko lituzke: Irakasleei, senideei, iritzi publikoari, e.a. zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak; hizkuntza-ereduen eta kurrikuluen berrikuspena; itzulpen-zerbitzuen antolakuntza; guetto bihurtu edo bihurtzen ari diren ikastetxeak arrakasta-zentro bilakatzeko egitasmoak bultzatzea; ikastetxean trebakuntza-iharduerak antolatzea, eskola-arraskastaren eta kultura-arteko bizikidetzaren aldeko egitasmoak bultzatzeko; ebaluazioei, sustapenei, euskara-salbuespenei, e.a. buruzko erabakiak; arabiera, txinera, berberea... bezalako hizkuntzak Bigarren Heziketako kurrikuluan hizkuntza ofizialtzat hartzea; hizkuntza-maila ezberdinak dituzten kurrikulu-materialak zabaltzea; beste herrietako Hezkuntza-Sailekin harremanetan jartzea, ikasle etorkinek bere jatorrizko hizkuntza mantentzeko aukera izan dezaten, e.a.

- **Ikastetxeen konpromisoak.**

Ikastetxeetan -berdin da ikasle etorkinak dauzkaten ala ez- gogoeta-prozesuak bultzatu beharko lirakeke, gizartearen kultura-aniztasunaren errealitateari eta hezitzaileek dugun erantzukizunari buruzkoak. Horien ondorioz, ikastetxean berrikuntza eta trebakuntza egitasmoak hasi beharko lirakeke, honako aspektu hauek lantzeko: arrazakeriaren aurkako hezkuntza; metodologia sartzailerak eta partehartzaileak erabiltzea, edozein ikasleren harrera eta arrakasta errazteko; bigarren hizkuntzen didaktikak; bizikidetzaren arauak era demokratikoan egitea, senideek, irakasleek, ikasleek, irakasleak ez diren langileek, boluntarioek... parte hartuz.

- **Etorkin-familiei eman beharreko informazioa.**

Hezkuntza Sailaren, Ikastetxeen eta Udalen lankidetzaz, ziurtatu beharko litzateke umeak matrikulatu behar dituzten familiei informazio egokia ematen zaiela. Horrek suposatuko luke, hizkuntza ezberdinetan emateko aukeraz gain, beraien esku hainbat datu jartzea; hala nola, ikastetxeetako eskola-arrakastaren indizeak, bertako ikasleen matrikulatzearen joera, e.a.



adarra@arrakis.es

Bilbo, 2006.eko apirila